

Bartzelonan, 2011ko urriaren 1ean bildurik, idazle euskaldun, galiziar eta katalanok
ADIERAZTEN DUGU:

1. Gu ikusezin bihurtzeko eta gure izaera kultural nahiz nazionala manipulatzeko eta lausotzeko ahalegin ororen kontra, sormen lanetan geure hizkuntza erabiltzen dugunak gara idazle euskaldun, galiziar eta katalanak, hau da, euskara, galiziera eta katalana darabilgunak.

2. Normalizazioan aurrera egin den arren, batetik, oso urruti gaude gizarte nazional finkatu batek eskatzen dituen gutxieneko baldintzetatik, eta, bestetik, gaur egun geure nortasunaren onarpenean atzerapausotzat jotzen ditugunak ikusten ditugu. Beste behin ere ohartarazi behar dugu Espainiar estatuan ez dagoela hizkuntza-aniztasunaren kulturarik, azken hogeita hamar urteetan ez baitu erakutsi hezkuntza girorik sortzeko borondaterik bizikidetzat demokratiko egiazkoa eta elkarren arteko ulermena egon dadin Estatu horren eremuko hizkuntzen eta literaturen artean, betiere kultura espainolaren "destino historikoaren" mito anakroniko horren menpekotzat jotz.

3. Estatu espainol bateratua birzentralizatzeko ahalegin berrien aurrean berriz ere oroitarazi behar dugu hemen ordezkaturiko nazioen burujabetza-maila handiagoak bakarrik bermatu dezakeela gure normaltasun egiazko eta osoa berreskuratzea.

4. Gure babesa adierazten diegu, ostera ere, geure hezkuntza-sistemetan ezarritako murgiltze-ereduei, hori baita modu egokia geure hizkuntza eta kultura minorizatuak berreskuratzeke.

5. Poblet-eko Adierazpenetik hogeita zazpi urte igarota, geure urteroko topaketek urte urte erakusten digute idazleek kezka sakona dutela estaturik gabeko gure nazioen arazoaz, konstatatu beharra baitugu oraindik ere badirela zentsura-modu ekonomiko eta ideologiko berriak, idazleonek lanean ere eragiten dutenak.

6. Geure konpromiso sendoa berresten dugu Euskal Herria, Galizia eta Kataluniako literaturen arteko elkartruke eta elkarlaneko harremanetan sakontzeko, Galeusca Federazioaren bitartez. Zehatzago:

-Herri batzuetako eta besteetako idazleen eta literatur lanetako esperientzien arteko trukeak bultzatuz.

-Edizio digitalen formatu berrietara egokitutako argitalpen bateratuak martxan jarritz.

-Elkarren arteko itzulpenak sustatuz, kultur esperientzien truke eta aberastea errazteko.

-Idazleen interes profesionalak modu bateratu eta elkartasunezkoan zainduz.

Poblet-en 1984ko ekainaren 24an egindako topaldian abiarazitako bidean, konpromisoa hartzen dugu orduan hasitako lanari jarraipena emateko, 2009an sortutako Galeusca Federazioaren bitartez.